



2020-21EKO ENPLEGU-PLANAK 36 LANPOSTU SORTUKO DITU AIARAKO KUADRILLAN ETA URDUÑAN

2020an eskualdeko enplegu-planak gauzatuko dira berriz ere. Aiarako Kuadrillan eta Urduñako udalerrian 36 pertsona kontratatuko dira sei hilabetez, 33 lanaldi osoan eta 3 lanaldiaren % 60an. LANBIDEk ekainaren 24ko ebazpenaren arabera eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten langabeentzat dira plan horiek. Udalerrri bakoitzean hainbat profil kontratatuko dira, eta iragarkiak LANBIDEn argitaratuko dira azaroaren 27tik aurrera. Interesdunek abenduaren 9ra arte eman ahal izango dute izena, LANBIDEn bitartez; horretarako, LANBIDEn web zerbitzua erabiltzea gomendatzen dugu. Kontratazioak abenduaren 31 baino lehen egingo dira.

Planak 636.000,00 eurotan baino gehiagotan zenbatesten dira, eta LANBIDEk (Euskal Enplegu Zerbitzuak) % 69an finantzatuko ditu gutxi gorabehera.

PRESIDENTEA ENCINA CASTRESANA ASTARLOA